

# LANBIDE-GARAPENEKO OHIKO DEIALDIA

OHIKO GALDERAK IZENA EMATEKO FASEAN  
2025EKO EKITALDIKO DEIALDIA ETA BERRIZ IREKITAKO 2022, 2023 ETA  
2024KO EKITALDIETAKO DEIALDIAK

**Osakidetza**

BER. 2

## **2025EKO EKITALDIKO ETA BERRIZ IREKITAKO 2022, 2023 ETA 2024KO EKITALDIETAKO LANBIDE-GARAPENERAKO OHIKO DEIALDIA (2081/2025 EBAZPENA, abenduaren 19koa)**

### **OHIKO GALDERAK**

<b>1. 2025EKO EKITALDIKO DEIALDIA ETA BERRIZ IREKITAKO 2022, 2023 ETA 2024KO EKITALDIETAKO DEIALDIAK</b>	<b>2</b>
<b>2. BERRITASUN NAGUSIAK</b>	<b>6</b>
<b>3. IZENA EMATEKO ESKAERA</b>	<b>10</b>
<b>4. ATZERA EGITEA</b>	<b>13</b>
<b>5. APLIKAZIO-EREMUA</b>	<b>14</b>
<b>6. MAILAN SARTZEKO ESKATZEN DIREN ZERBITZUEN ZENBAKETA</b>	<b>15</b>
<b>7. EBALUATZEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK</b>	<b>21</b>

# 1. 2025EKO EKITALDIKO DEIALDIA ETA BERRIZ IREKITAKO 2022, 2023 ETA 2024KO EKITALDIETAKO DEIALDIAK

## 1. LANBIDE-GARAPENEN DEIALDI HAU EZ DAGOKIO BAKARRIK 2025EKO EKITALDIARI?

Hala da. Deialdi hau **2025eko ekitaldikoa** izateaz gain, **berriz irekitako 2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldiei** ere dagokie, baina, azken kasu horretan, dagokien deialdiaren aplikazio-eremuan egon arren ekitaldi horretan sarbide-baldintza zehatzak betetzen ez zituzten langileentzat soilik da.

## 2. ZERGATIK IREKITZEN DIRA BERRIRO 2022KO, 2023KO ETA 2024KO EKITALDIAK?

**Epai judizial exekutatuta**, sarbide-baldintza jakin batzuk baliogabetu egin dira eta Osakidetzak berriaz ireki ditu 2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldiei dagozkien lanbide-garapenerako deialdiak, sarbide-baldintza horiek jada aplikatu gabe.

## 3. NORK HAR DEZAKE PARTE 2025EKO EKITALDIKO DEIALDIAN?

2025eko ekitaldiko deialdian profesionalek parte har dezakete, baldin eta deialdiaren **aplikazio-eremuan badaude eta** sarbidea ematen duen lanbide-taldetik **maila batera sartzeko eskatzen diren zerbitzu-urteak bete badituzte**, hau da, 5 urte, I. mailarako; 11 urte, II. mailarako; 18 urte, III. mailarako; eta 25 urte, IV. mailarako. Gainera, **langile ez-finkoen** kasuan, eskaera aurkezteko epea hasi aurreko azken 5 urteetan Osakidetzan 3 urtez zerbitzuak benetan eman izana eskatuko da.

## 4. ETA NORK HAR DEZAKE PARTE 2022KO, 2023KO ETA 2024KO EKITALDIETAKO DEIALDIETAN?

2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldietako deialdi horiek berriaz irekiko dira, baina **soilik pertsona hauentzat**: ekitaldi horietan, dagokion deialdiaren **aplikazio-eremuan zeudela, ez zituzten betetzen orduan indarrean zeuden** eta orain epai judizialen bidez baliogabetuta dauden sarbide-baldintzak.

## 5. ORAIN IREKIKO DIREN LAU EKITALDIETAN PARTE HAR DEZAKET?

**Ez, deialdi bakar batean** soilik parte hartzeko eskaera aurkez dezakezu. Hori dela eta, baldintza bi hauek betetzen dituen deialdia hautatu behar duzu: (1) deialdiaren aplikazio-eremuan egon zinen, ekitaldi horretan eskaera aurkezteko ezarri zen epean (ikus *6. galdera*); eta (2) deialdi horren urteko abenduaren 31n, zauden lanbide-taldetik igo nahi duzun mailarako eskatzen diren zerbitzu-urteak bete zenituen.

## 6. 2022, 2023 ETA 2024KO EKITALDIETAKO DEIALDIETAN PARTE HARTU AHAL IZATEKO APLIKAZIO-EREMUAN EGOTEARI DAGOKIONEZ, ZEINTZUK DIRA ESKAERA AURKEZTEKO EPEAK?

Deialdiaren aplikazio-eremuan egoteko, langileek zerbitzu aktiboan egon behar dute Osakidetzan, edota senideak zaintzeko eszedentzian, genero-indarkeriagatiko edo zerbitzu bereziengatiko eszedentzian, parte hartu nahi duten deialdiko eskaera aurkezteko epean, hau da:

- **2026ko urtarrilaren 27tik otsailaren 26ra arte bitartean, 2025eko ekitaldiko** deialdian parte hartzeko;
- **2023ko ekainaren 29tik abuztuaren 2ra arte bitartean, 2022ko ekitaldiko** deialdian parte hartzeko;
- **2024ko otsailaren 27tik martxoaren 27ra arte bitartean, 2023ko ekitaldiko** deialdian parte hartzeko; eta
- **2025eko urtarrilaren 3tik otsailaren 3ra arte bitartean, 2024ko ekitaldiko** deialdian parte hartzeko.

2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldietako deialdietan parte hartzeko eskaera aurkezteko epeak, hurrenez hurren, 1184/2023 Ebazpenari, 2425/2023 Ebazpenari eta 1723/2024 Ebazpenari dagozkionak dira.

## 7. 2022KO EKITALDIKO DEIALDIAN PARTE HARTU NUEN, BAINA EBALUAZIO NEGATIBOA IZAN NUEN. 2022KO EKITALDI HORRETAN BERRIRO PARTE HAR DEZAKET?

Ez, zu bezala deialdi batean sartuta zeuden eta horretan parte hartu zuten pertsonak **orain ezin dute berriro aurkeztu** deialdi berean **parte hartzeko eskaera**.

## 8. NIRE KASUAN, 2023KO EKITALDIKO DEIALDIAN PARTE HARTU NUEN ETA EBALUAZIO POSITIBOA IZAN NUEN. AURREKO EKITALDIKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKAERA AURKEZ DEZAKET ORAIN?

Bai, **2022ko ekitaldiko deialdian parte hartu ez bazenuen**, deialdi horretan parte hartzeko eskaera egin dezakezu. Hori bai, 2022ko ekitaldiko deialdiaren aplikazio-eremuan zeudela ziurtatu behar duzu, bestela, ez baitzaituzte onartuko deialdi horretan.

## 9. LANBIDE-GARAPENERAKO 2022KO EKITALDIKO DEIALDIAN ONARTZEN BANAUTE, ZER CURRICULUM-MEREZIMENDU IZANGO DITUZTE KONTUAN, EBALUATZEKO PROZEDURARI BEGIRA?

Lanbide-garapeneko edozein deialditan bezala, B blokea eta C blokea ebaluatzekeko prozeduran kontuan izango dira curriculum-merezimendu hauek guztiak: **Curriculum Vitaeren aplikazio korporatiboan baliozkotuta daudenak**, eta izangaia onartu den deialdian hautatutako garapen mailari dagokion mailan **igarotako denbora-tartearen egin eta burutu direnak**.

Izan ere, aintzat hartuko dira aurre-aurreko sei (II. maila) edo zazpi urteetan (III. eta IV. maila) lortutako curriculum-merezimenduak (edota denbora-mugarik gabe, I. maila hautatu dutenentzat) izangaia onartu den deialdiaren urteko abenduaren 31ra arte, hau da:

- **2025eko abenduaren 31ra arte**, 2025eko ekitaldiko deialdian onartuta daudenen kasuan;
- **2022ko abenduaren 31ra arte**, 2022ko ekitaldiko deialdian onartuta daudenen kasuan;
- **2023ko abenduaren 31ra arte**, 2023ko ekitaldiko deialdian onartu direnentzat, eta
- **2024ko abenduaren 31ra arte**, 2024ko ekitaldiko deialdian onartu direnentzat.

## 10. BERAZ, 2022KO EKITALDIKO DEIALDIAN ONARTUA BANINTZ, NIRE CVAN DAUDEN ETA DATA HORREN ONDOREN BALIOZKOTU DIREN CURRICULUM-MEREZIMENDUAK EZ DIRA KONTUAN IZANGO?

Ez da guztiz horrela. Ikus dezagun. Onartua zaren deialdiaren urteko (zure adibidean, 2022ko) abenduaren 31ren ondoren baliozkotu diren curriculum-merezimenduak badituzu Curriculum Vitaeren aplikazio korporatiboan, baina merezimendu horiek **egin eta burutu badira 2022ko abenduaren 31ra arte edo lehenago** eta aplikatzen zaizun zerbitzuan **egoteko denbora-tartea hasi denetik** (hautatu duzun mailaren arabera, 6 urte, II. maila bada edo 7 urte, III. eta IV. maila bada, edo hasteko denbora-mugarik gabe, I. mailaren kasuan), orduan bai, merezimendu horiek kontuan izango dira B blokea eta C blokea ebaluatzekeko prozeduran.

Beraz, CV aplikazio korporatiboan oraindik erregistratu ez diren eta 2022ko, 2023ko edo 2024ko ekitaldiko zerbitzuan egoteko epeari dagozkion curriculum-merezimenduak badituzu, **oraindik erregistra ditzakezu, berriro irekiko diren deialdi horietan kontuan hartzeko**. Izan ere, espresuki ezarriko da epe bat, deialdi bakoitzean onartu diren profesionalek merezimendu horiek erregistra ditzaten, baita beste epe bat ere, Osakidetza zerbitzu-erakundeek merezimenduok baliozkotu ditzaten.

Hala ere, aplikazioan baliozkotuta dauden curriculum-merezimenduak onartua zaren **deialdiari dagokion urteko abenduaren 31ren ondoren egin eta burutu** badira, ezingo dira aintzat hartu ebaluazio-prozeduran. **Zerbitzuan egoteko aipatutako epea hasi baino lehen** lortu ziren merezimenduak ere ezingo dira kontuan hartu (A eta B lanbide-taldeetan graduondoko titulazioak direnean izan ezik, horiek zenbatzen baitira, bai, baina modu haztatuan, aplikatu beharreko baremoak ezartzen duenez).

## 11. ETA ZEIN DA MAILAKETA-ONDORIOEN DATA 2022KO, 2023KO ETA 2024KO EKITALDIETAKO DEIALDI HORIETAN?

Mailaketa-ondorioak izateko data hau izango da: izangaia onartua izan ondoren A, B eta C blokeak ebaluatzeko prozeduran ebaluazio positiboa lortu duen deialdia egin eta hurrengo urteko urtarrilaren 1a da, hau da:

- **2023ko urtarrilaren 1a, 2022ko** ekitaldian ebaluazio positiboa lortu dutenentzat;
- **2024ko urtarrilaren 1a, 2023ko** ekitaldian ebaluazio positiboa lortu dutenentzat, eta
- **2025eko urtarrilaren 1a, 2024ko** ekitaldian ebaluazio positiboa lortu dutenentzat.

2025eko ekitaldiko deialdian onartuta daudenen kasuan, mailaketa-ondorioen data 2026ko urtarrilaren 1a da.

## 12. 2022KO, 2023KO EDO 2024KO EKITALDIETAKO DEIALDI HORIETAKO BATEAN EBALUAZIO NEGATIBOA LORTZEN BADUT, NOLA ZENBATUKO DA ZEHAPENA APLIKATZEKO EPEA?

A eta/edo C blokeak ebaluatzeko prozeduran ebaluazio negatiboa lortzen bada, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 38. artikulua arabera, ezingo da lanbide-garapenerako deialdi berrietan parte hartu **bi urtez, garapen mailak esleitzeko ebazpena ematen denetik**.

2022ko, 2023ko edo 2024ko ekitaldietako deialdiak orain berriz irekita onartuak izango direnentzat, aplikatzeko epea **mailak deialdi horietan esleitzeko ebazpenak eman zirenetik** hasiko da zenbatzen, hau da:

- **2024ko maiatzaren 21etik** (956/2024 Ebazpena, maiatzaren 10ekoa), 2022ko ekitaldian ebaluazio negatiboa izan dutenentzat;
- **2024ko azaroaren 22tik** (1523/2024 Ebazpena, azaroaren 11koa), 2023ko ekitaldian ebaluazio negatiboa izan dutenentzat; eta
- **2025eko ekainaren 30etik** (984/2025 Ebazpena, ekainaren 12koa), 2024ko ekitaldian ebaluazio negatiboa izan dutenentzat.

## 13. DEIALDI HORIETAKO BATEAN EBALUAZIO NEGATIBOA JASOTZEN BADUT, BESTE DEIALDI BATEAN BERRIO IZENA EMATEKO AUKERA IZANGO DUT?

**Ez, ezinezkoa da.** 2022, 2023 edo 2024ko ekitaldietako deialdiak berriz irekita horietako batean edo 2025eko ekitaldiko deialdian parte hartzeko eskaera aurkez dezakezu eskaerak aurkezteko orain ezarritako epean, hau da, 2026ko urtarrilaren 27tik otsailaren 26ra arte. Lau deialdietako bakar batean izena emanda, ezingo duzu horietako beste batean parte hartzeko eskaera aurkeztu, are gutxiago, prozedura osoa amaituta ebaluazio negatiboa jasotzen baduzu.

## 2. BERRITASUN NAGUSIAK

### 14. ZEINTZUK DIRA LANBIDE-GARAPENERAKO DEIALDI HONEN BERRITASUN NAGUSIAK?

Aurreko hiru ohiko deialdiekin alderatuta (1184/2023 Ebazpenak, 2425/2023 Ebazpenak eta 1723/2024 Ebazpenak arautuak, hurrenez hurren, 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietarako), deialdi berri honek berritasun hauek ditu:

- Deialdi hau **2025eko ekitaldikoa** izateaz gain, berriz irekitako **2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldiei** ere dagokie, baina, azken horiek dagokien deialdiaren aplikazio-eremuan egon arren ekitaldi horretan sarbide-baldintza zehatzak betetzen ez zituzten langileentzat dira.
- Deialdi honetan parte hartzeko, **desagertu egin dira Osakidetzan zerbitzuak benetan emateari buruzko sarbide-baldintzak** langile finkoentzat.
- Gainera, langile ez-finkoentzat ere **desagertu egiten da Enplegu Publikoaren Eskaintzaren azken prozesuan parte hartu** eta garapen-maila lortzeko aukeratutako kategoriako azterketa egin izanaren **sarbide-baldintza**.
- Mailara sartzeko eskatzen diren zerbitzuak zenbatzeko, % 50ean zenbatuko dira **sarbidea ematen duen lanbide-taldean beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak, baita I. mailan sartzeko ere**, betiere Osakidetzan edo Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetan emandako zerbitzuekin denboran gainjartzen ez badira.
- **Zerbitzu berezietan bi urte baino gehiago** daramaten Osakidetza profesionali 8. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie. Era berean, artikulua hori bera aplikatuko zaie **sindikatu-ordezkaritzako funtzioak betetzen ari diren profesionali, lanaldiaren % 100eko liberazioarekin**.

### 15. ZERTAN DATZA OSAKIDETZAN ZERBITZUAK BENETAN EMATEARI BURUZKO SARBIDE-BALDINTZAK DESAGERTZEA LANGILE FINKOENTZAT?

Orain arte, aurreko deialdietan parte hartzeko, langile finkoek, deialdi bakoitzaren aplikazio-eremuan egoteaz gain, eskaerak aurkezteko epea **hasi aurreko azken hiru (3) urteetan Osakidetzan urtebetez zerbitzuak benetan ematen egon izana** egiaztatu behar zuten. Osakidetzan plaza bazuten; plazarik ez bazuten, eskaerak aurkezteko epea **hasi aurreko azken hiru (3) urteetan** zerbitzuak **hiru (3) urtez benetan ematen egotea** egiaztatu behar zuten. 2025eko ekitaldiko deialdi honetan eta berriz irekitako 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietako deialdietan, **baldintza horiek desagertu egin dira**, eta jada ez dira aplikatzen.

### 16. LANGILE EZ-FINKOEN KASUAN, DESAGERTU AL DA ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAREN AZKEN PROZESUAN PARTE HARTU IZANAREN BALDINTZA ERE?

Hala da. **Langile ez-finkoek jada ez dute baldintza hori bete behar**, aurreko deialdietan eskatzen zen arren. Beraz, langile ez-finkoek badute aukera 2025eko ekitaldiko lanbide-garapenerako deialdi honetan eta berriz irekitzen diren 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietako deialdietan parte hartzeko, Enplegu Publikoaren Eskaintzaren azken prozesuan parte hartu ez badute ere.

## 17. BERAZ, DEIALDI HORIETAN PARTE HARTZEKO, NAHIKOA DA IZENA EMATEA?

**Ez**, izena ematea ez da nahikoa. Sarbide-baldintza gehienak desagertu diren arren, **oraindik badaude baldintza batzuk sisteman sartzeko** eta 2025eko ekitaldiko lanbide-garapenerako deialdi honetan eta berriz irekitzen diren 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietako deialdietan parte hartzeko. Alde batetik, deialdian parte hartu nahi dutenek 2081/2025 Ebazpenaren 2. artikuluan deskribatutako egoeraren batean egon behar dute, horrela baitaude deialdiaren **aplikazio-eremuan** (ikus *6. galdera*).

Bestetik, 2081/2025 Ebazpenaren 3. artikulua arabera, sarbide-baldintza da parte-hartzaileek **aukeratutako garapen-mailarako eskatzen diren zerbitzu-urteak izatea sarbidea ematen duen lanbide-taldean**, hau da, lanbide-taldean 5 urtez zerbitzuak ematea I. mailarako, 11 urtez II. mailarako, 18 urtez III. mailarako eta 25 urtez IV. mailarako. Eskatutako urteak betetzen ez dituzten pertsonak deialditik kanpo geratuko dira. Gainera, **langile ez-finkoen** kasuan, eskaera aurkezteko epea hasi aurreko azken 5 urteetan Osakidetzan 3 urtez zerbitzuak benetan eman izana eskatuko da.

## 18. LANBIDE-TALDE BEREAN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN EMANDAKO ZERBITZUAK % 50EAN ZENBATZEN DIRA. BAINA EZ ZEN HALA AURREKO DEIALDIETAN?

**Ez**, aurreko deialdietan beste administrazio publiko batzuetan lanbide-talde berean emandako zerbitzuak % 50ean zenbatzen ziren, baina, horretarako, talde horretan bertan, **gutxienez 5 urteko prestazioa efektiboa bildu behar zen aldez aurretik Osakidetzan** eta/edo Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetan.

2025eko ekitaldiko deialdi honetan eta berriz irekitako 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietako deialdietan, lanbide-talde berean beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak **% 50ean zenbatzen dira**, talde horretan bertan Osakidetzan eta/edo Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetan **5 urteko prestazio efektiboa izan edo ez**.

Hortaz, deialdi honetan parte har daiteke Osakidetzako lanbide-garapeneko I. mailan, **Euskal Osasun Zerbitzuan 5 urteko prestazio efektiboa izan gabe** —hori ezinezkoa zen aurreko deialdietan—.

## 19. ORDUAN, PARTE HAR DEZAKET LANBIDE-GARAPENERAKO DEIALDI HONETAN I. MAILARAKO BEHAR DIREN 5 URTEAK BETE GABE?

**Ez**, zerbitzuak ez badituzu gutxienez 5 urtez eman sarbidea ematen duen lanbide-taldean, **deialditik kanpo geratuko zara**.

Hala ere, aurreko deialdietan ez bezala, 2025eko ekitaldiko deialdi honetan eta berriz irekitako 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietako deialdietan, zure lanbide-taldean eskatzen diren 5 zerbitzu-urteak zenbatzeko, **alde batetik, talde horretan Osakidetzan**, Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetan eta/edo Europar Batasuneko estatu kideetako osasun-zerbitzu publikoetan **emandako zerbitzuak batu** ditzakezu, eta, **beste alde batetik, sarbidea ematen duen lanbide-taldean beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuen % 50** zenbatu.

Kontuan izan, hori bai, sarbidea ematen duen lanbide-taldean beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak **ez direla denboran gainjarri behar Osakidetzan**, Osasun Sistema Nazionalean (OSN) eta/edo Europar Batasuneko Osasun Zerbitzu Publikoetan **emandako zerbitzuekin** edo, bestela, ezin izango direla kontuan hartu maila horretan sartzeko emandako zerbitzuen zenbaketan.

## 20. ETA ZER GERTATZEN DA BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN BAINA OSAKIDETZAKO MAILA ESKATZEN DEN TALDEKOAK EZ DIREN LANBIDE-TALDEETAN EMANDAKO ZERBITZUEKIN?

Aurreko deialdietan bezala, beste administrazio publiko batzuetan baina Osakidetzako mailara sartzeko lanbide-taldekoak ez diren lanbide-taldeetan emandako zerbitzuak **ezin dira kontuan hartu sarbide-baldintza horren zenbaketan**, ez % 50ean, ez bestelako haztapienik eginda. Kontuan izan 3. artikuluan jasotako haztapien-taula Osakidetzan, Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetan eta/edo Europar Batasuneko estatu kideetako osasun-zerbitzu publikoetan emandako zerbitzuei bakarrik aplikatu dakiekeela.

## 21. ALDAKETAK EGON DIRA EBAZPENAREN 8. ARTIKULUAREN ARABERA EGOERA BEREZIAN DAUDEN PERTSONEN KASUAN ERE. ZERTAN DAUTZA ALDAKETA HORIEK?

Hain zuzen ere, lanbide-garapenerako aurreko deialdiekin konparatuta, oraingoak **aldaketak ditu** 2081/2025 Ebazpenaren **8. artikuluan**. Alde batetik, **zerbitzu berezietan daudenei bi urtetik gorako epea** eskatzen zaie 8. artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal izateko. Aurreko deialdietan ez zegoen eskatu beharreko gutxieneko eperik. **Sindikatu-ordezkaritzako funtzioak betetzen ari diren profesionaleri ere lanaldiaren % 100eko liberazioa eskatzen zaie orain**, 8. artikuluan edukia aplikatu ahal izateko.

Bestalde, 8. artikuluan ezartzen duenez, profesionalak zerbitzu berezietan bi urtetik gora izatearen edo sindikatu-ordezkaritzako funtzioak betetzean lanaldiaren % 100eko liberazioa izatearen baldintza horiek betetzen dituztenean, **bakoitzak aukeratutako garapen-maila lortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa emango zaie, baina soilik A eta C ebaluazio-blokeetan**. Aurreko deialdietan ez zegoen blokeen araberrako bereizketa hori, eta, hortaz, B blokeari ere esleitzen zitzaion eskatutako gutxieneko puntuazioa. 2025eko ekitaldiko deialdi honetan eta berriz irekitako 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietako deialdietan, egoera berezietan dauden profesional horiek beren merezimenduekin lortu behar dute B blokean eskatzen den gutxieneko puntuazioa.

## 22. ORAIN ARTE AURKEZTUTAKO BERRITASUN GUZTIAK ALDEKOAK DIRA, BAINA AZKEN HORREK EGOERA BEREZIETAN DAUDENENTZAKO BALDINTZAK GOGORTZEN DITU.

Bai, hala da. Berritasun horiek guztiak epai desberdinetatik datoz. Batzuk zuzenean dira aplikagarriak Osakidetzaren lanbide-garapeneko araudian, eta beste batzuk, zeharka. Egoera berezietan buruzko 8. artikularen kasuan, **nahitaez bete beharreko epai irmoa** da, eta, beraz, aplikatu egin behar da, baldintzak gogortu arren.

## 23. 9. ARTIKULUKO EBALUAZIO-PROZEDURARI ETA -IRIZPIDEEI BURUZ.

Aurreko deialdietan ebaluazio-prozedura Osakidetzan zerbitzuak gutxienez 5 urtez benetan eman zituztenentzat bakarrik egiten zen, parte-hartzaile guztiek bete behar zutelako sarbide-baldintza hori. 2025eko ekitaldiko deialdi honetan eta berriz irekitako 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietako deialdietan, posible da lanbide-garapeneko deialdian onartua egotea, 2081/2025 Ebazpenaren 2. artikuluan (“Aplikazio-eremua”) jasotako egoeretako batean egonda eta sarbidea ematen duen lanbide-taldean garapen-mailarako eskatutako zerbitzu-urteak izanda, Osakidetzan zerbitzuak 5 urtez benetan eman gabe.

Hala eta guztiz ere, eta kontuan hartuta, behin onartuta eta lanbide-garapeneko sistemaren helburuen arabera, profesionalek ebaluatuta izan behar dutela beren jarduera eta domeinu profesionala (A blokea), bai eta Osakidetzarekiko eta haren zerbitzu-erakundeekiko inplikazioa eta konpromisoa ere (C blokea), A blokea eta C blokea osatzen duten faktoreen eta azpifaktoreen ebaluazio fidagarria eta baliozkoa egin ahal izateko, egon daitezkeen alborapenen eragin negatiboa minimizatuta, teknikoki eskatzen da onartutako profesionalek denborari dagokionez modu aski iraunkorrean bete izana betetzen dituzten lanpostu funtzionalak, zerbitzu bakoitzaren ohiko baldintzen arabera eta Osakidetzaren eguneroko testuinguruan kokatuta. Horrela bakarrik egin daiteke teknikoki egokia den ebaluazioa A eta C blokeetan.

## 3. IZENA EMATEKO ESKAERA

### 24. NORK AURKEZ DEZAKE PROZESU HONETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA?

Osakidetzako lanbide-talde guztietako **langile finkoek eta ez-finkoek** har dezakete parte, baldin eta eskaerak aurkezteko epean zerbitzu aktiboan badaude edota senideak zaintzeko, genero-indarkeriagatiko edo zerbitzu bereziengatiko eszedentzian badaude, eta, gainera, sarbidea ematen duen lanbide-taldean emandako zerbitzuen zenbaketari buruzko baldintza betetzen badute, 2081/2025 Ebazpenaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### 25. NOLA AURKEZ DEZAKET ESKAERA?

Parte-hartzaile bakoitzak **lanbide-garapeneko aplikazio informatikora** sartu beharko du URL honen bidez: <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>, intranetean eta Osakidetzaren webgunean horretarako gehitu den atalaren bidez. Webgunean sartuta, erabiltzaileek bi modu izango dituzte aplikazioan sartzeko:

- **NANaren eta Norbideko pasahitzaren bidez** (Osakidetzako sistemetara sartzeko erabiltzen dena).
- **IZENPEren bidez** (Euskadiko identifikazio elektronikoa), **BakQ**, **ziurtagiri digitalak** edo **Cl@ve** erabilita.

### 26. ZEIN DA ESKAERA AURKEZTEKO EPEA?

Epea **2026ko urtarrilaren 27tik otsailaren 26ra bitartekoa da** (biak barne).

### 27. AURKEZTU BEHAR AL DUT BESTE OSASUN-ZERBITZU EDO ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN EMANDAKO ZERBITZUAK EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA?

Garapen profesionaleko mailara sartzeko eskatzen diren zerbitzuen zenbaketa egiteko, 2025eko deialdian parte hartzen dutenen kasuan, **2025eko abenduaren 31ra arte emandako zerbitzuak hartzen dira aintzat**. Hori kontuan izanik, Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetan eta/edo beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak badituzu, jarraibide hauek bete behar dituzu:

- CV aplikazio informatikoan erregistratuta eta baliozkotuta badaude, ez duzu dokumentazio gehiagorik aurkeztu beharko.
- CV aplikazio informatikoan erregistratuta badaude, baina ez baduzu entregatu/aurkeztu emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria edo kopia konpultsatua, eskaera egiteko epearen barruan aurkeztu beharko duzu zure zerbitzu-erakundeko langileen sailean.
- CV aplikazio informatikoan erregistratuta ez badaude, erregistratu egin behar dituzu eta emandako zerbitzuen ziurtagiri originala edo kopia konpultsatua entregatu/aurkeztu behar duzu. Ziurtagiri horretan data, izen-abizenak eta konpultsa egin duen arduradunaren sinadura irakurgarria agertu behar dira, zure zerbitzu-erakundeko langileen sailean eskabidea aurkezteko epearen barruan.

## 28. ZEIN DIRA ESLEITUTAKO MAILAREN ZENBATEKOAK ETA ORDAINSARI-ONDORIOAK?

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak abenduaren 19an eman zuen **2081/2025 Ebazpenaren 11. artikuluan** jasotzen dira mailaren esleipenak ordainsarian izango dituen ondorioak.

## 29. ZER EGIN DEZAKET APLIKAZIOAK ADIERAZTEN BADIT SARBIDERIK EZ DUDALA?

<https://lanbidegarapena.osakidetza.eus> helbidean dagoen aplikazio informatikoan sartzeko arazorik izanez gero, deitu 945006350 – 806350 **telefonora** edo bidali galdera **inprimaki** honen bidez: <https://inkestagune.osakidetza.eus/index.php/888768?lang=eu>

## 30. NOIZ JASOKO DITUT AITORTUTAKO LANBIDE-GARAPENENKO MAILAREN ZENBATEKOA ETA EZARRITAKO ORDAINSARI-ONDORIOAK?

Prozesu osoa amaitutakoan, **maila esleitzeko behin betiko ebazpena** emango da, eta nominan ordainduko da, 2081/2025 Ebazpenaren 11. artikuluan kasu bakoitzean ezarritako ordainsari-ondorioekin.

## 31. OHIKO DEIALDIAN FORMALIZATU DUT NIRE ESKAERA, ETA DAGOKION FROGAGIRIA DESKARGATU DUT. HORREK ESAN NAHI AL DU ONARTUTA NAGOELA?

Ez, maila eskatzeko prozesuan izena emanda egotea funtsezkoa da ohiko deialdi honetan parte hartzeko, baina horrek **ez du automatikoki esan nahi** pertsonak deialdian onartuta daudenik. Eskerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Osakidetzak egiaztatuko du inskribatutako pertsona bakoitza deialdiaren **aplikazio-eremuan dagoela** (2081/2025 Ebazpenaren 2. artikulua), eta hautatu duen **garapen-mailara sarbidea ematen duen lanbide-taldean emandako zerbitzuen zenbaketari buruzko baldintza betetzen duela** (2081/2025 Ebazpenaren 3. artikulua).

Baldintza horiek betetzen ez dituztenak deialditik kanpo geratuko dira. Baztertze hori arrazoitua izango da, eta erreklamatu eta zuzendu ahalko da 10 egun balioduneko epean, dagokion ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

## 32. OHIKO DEIALDIAN IZENA EMAN DUT, BAINA APLIKAZIO INFORMATIKOAK EZ DIT AUKERARIK EMATEN NIRE GARAPEN-MAILA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA ERANSTEKO.

Fase honetan **ezin da inolako dokumentaziorik erantsi Lanbide Garapenaren aplikazioan**. Garapen-mailaren autoebaluazioa prozesuaren ondorengo fase batean egingo da, eta, horretarako, pertsona bakoitzak Ebaluaziorako Ekarpenen Fitxa bat aurkeztuko du. Fase hau ohiko deialdian parte hartzeko izen-ematea formalizatzeko da.

Nahi izanez gero, **curriculum-merezimenduak erregistratu ditzakezu Curriculum Vitaeren aplikazio korporatiboan**. Egiaz, erregistro hori irekia eta iraunkorra da, beraz, aspalditik erregistratu daitezke merezimenduok. Nolanahi ere, deialdian onartutako pertsonen zerrenda argitaratzen denean, epe bat emango da merezimendu horiek erregistratzeko eta zure zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan jatorrizko egiaztagiriak aurkezteko, bertan baliozkotu ditzaten.

## 33. OHIKO DEIALDIAN IZENA EMAN DUT, BAINA APLIKAZIO INFORMATIKOAK EZ DIT LANBIDE-GARAPENENKO MAILARIK ESLEITU.

Fase honetan, aplikazio informatikoak **ez du lanbide-garapeneko mailarik proposatzen eta esleitzen**. Lanbide-garapenaren prozesuaren ondorengo fase batean esleituko da, autoebaluazioa eta arloko, zerbitzuko edo unitateko arduradunak ebaluazioa egin ondoren. Fase hau ohiko deialdian parte hartzeko izen-ematea formalizatzeko da.

## 34. ZER DOKUMENTAZIO AURKEZTU BEHAR DUT LANBIDE-GARAPENENKO DEIALDIAN ETA NON AURKEZTU BEHAR DUT?

**Osakidetzatik kanpo emandako zerbitzuak eta B blokeko curriculum-merezimenduak** (Prestakuntza, Irakaskuntza/Ezagutzaren zabalkundea eta Ikerkuntza/Berrikuntza) eta C blokeko curriculumaren merezimenduak (Parte-hartzea eta Konpromisoa) egiaztatzen dituen dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, baldin eta **aldez aurretik Curriculum Vitaeren aplikazio informatikoan erregistratuta eta baliozkotuta ez badago**. Dokumentazio hori Curriculum Vitaeren aplikazio informatikoan erregistratuko du parte-hartzaile bakoitzak, eta jatorrizko dokumentazioa edo fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko du bere zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan, Osakidetzak baliozkotu dezan.

## 4. ATZERA EGITEA

### 35. LANBIDE-GARAPENAREN APLIKAZIO INFORMATIKOAN SARTU NAIZ, ETA DEIALDI HONETAN IZENA EMAN DUT. HALA ERE, NIRE ESKAERAN ATZERA EGIN NAHI DUT. ZER EGIN BEHAR DUT HORRETARAKO?

Lanbide-garapeneko deialdian izena emateko eskaeran atzera egitea eskatzeko, nahikoa da “Izena ematea” fitxan dagoen **“Atzera egitea” botoia sakatzea**. Kontuan izan, atzera egitea eskatzen duzunean, Osakidetzak automatikoki onartuko duela, eta zure eskaera baliogabetuta geratuko dela. Beraz, abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenak araututako 2025eko ekitaldiko deialdian **izena emateko eskaera ezingo duzu berriro egin**.

Hala eta guztiz ere, jakin ezazu, deialdiaren aplikazio-eremuan ez bazaude edo sartu nahi duzun lanbide-taldean ez badituzu garapen-mailarako eskatzen diren zerbitzu-urteak biltzen, **zure eskaera deialditik kanpo geratuko dela, besterik gabe**. Kanpo geratzeak **ez dakar inolako zigorrik**.

## 5. APLIKAZIO-EREMUA

### 36. ESTATUTUPEKO LANGILE FINKOA NAIZ, ETA ESZEDENTZIAN NAGO SEKTORE PUBLIKOAN ZERBITZUAK EMATEAGATIK. DEIALDIAREN APLIKAZIO-EREMUAREN BARRUAN NAGO?

Ez. Sektore Publikoan zerbitzuak emateagatik eszedentzian dauden langileak **ez daude ohiko deialdi honen aplikazio-eremuan**, 2081/2025 Ebazpenaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### 37. LANPOSTUA JABETZAN DUT OSAKIDETZAN, BAINA OSASUN SISTEMA NAZIONALEKO (OSN) BESTE OSASUN-ZERBITZU BATI ATXIKITA NAGO ALDI BATERAKO, ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ. 2025EKO EKITALDIKO DEIALDIAREN APLIKAZIO-EREMUAREN BARRUAN NAGO?

Bai, Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batean zerbitzu-eginkizunen bidez aldi baterako atxikita dauden profesionalak deialdiaren aplikazio-eremuaren **barruan daude**.

### 38. NIRE KASUA AURREKOAREN ANTZEKOA DA, BAINA ALDERANTZIZ. LANPOSTUA JABETZAN DUT OSASUN SISTEMA NAZIONALEKO (OSN) BESTE OSASUN-ZERBITZU BATEAN, BAINA OSAKIDETZARI ATXIKITA NAGO ALDI BATERAKO, ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ. 2025EKO EKITALDIKO DEIALDIAREN APLIKAZIO-EREMUAREN BARRUAN NAGO?

Bai, Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batean lanpostua jabetzan duten eta zerbitzu-eginkizunen bidez aldi baterako Osakidetzari atxikita dauden profesionalak deialdiaren **aplikazio-eremuan daude**.

## 6. MAILAN SARTZEKO ESKATZEN DIREN ZERBITZUEN ZENBAKETA

### 39. ZEIN DATA HARTZEN DA AINTZAT 2025EKO EKITALDIAN ESKATUTAKO GARAPEN-MAILAN SARTZEKO EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK ZENBATZEKO?

Eskatutako garapen-mailan sartzeko zerbitzu-urteen zenbaketa **2025eko abenduaren 31ko** egoera aintzat hartuta egiten da.

### 40. ESTATUTUPEKO LANGILE EZ-FINKOA NAIZ, EZ DAUKAT GARAPEN-MAILARIK AITORTUTA, ETA, 2025EKO ABENDUAREN 31N, GUZTIRA 5 URTE ETA ERDI NERAMATZAN OSAKIDETZAN ZERBITZUAK EMATEN, 248/2007 DEKRETUAN ARAUTUTAKO ZENBAIT LANBIDE-TALDE KONTUAN HARTUTA. ZEHAZKI, 4 URTE DITUT LANBIDE-TALDE BATEAN, ETA URTE ETA ERDI, GORAGOKO BESTE LANBIDE-TALDE BATEAN. GORAGOKO TALDEAN LEHENIK EMAN NITUEN ZERBITZUAK, ETA, GAUR EGUN, BEHERAGOKO TALDE BATEAN ARI NAIZ LANEAN. BETETZEN AL DUT I. MAILAN SARTZEKO 2025EKO DEIALDIAN ESKATZEN DIREN ZERBITZUEN ZENBAKETAREN BALDINTZA?

**Bai**, betetzen duzu lanbide-garapeneko I. mailan sartzeko eskatzen diren zerbitzuen zenbaketari buruzko baldintza, 2081/2025 Ebazpenaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala, egindako zerbitzu-urteei dagokienez, deialdian parte hartu nahi duten profesionalek gutxienez 5 urtez aritu behar dute sarbidea ematen duen lanbide-taldean. 248/2007 Dekretuak araututako taldeetako langileen kasuan (hau da, A1 eta B1 ez diren taldeetako langileen kasuan), sarbidea ematen duen lanbide-taldean emandako 5 urteak zenbatzeko, kontuan hartuko dira **bai maila lortu nahi den kategoriako lanpostu funtzionalak, bai goragoko kategorietakoak**. Gaur egun beheragoko lanbide-taldean zaudenez, goragokoan emandako zerbitzuak kontuan har daitezke 5 urteak zenbatzeko garapen-maila eskatzen duzun lanbide-taldean.

## 41. NIRE KASUA ANTZEKO DA. ESTATUTUPEKO LANGILE EZ-FINKOA NAIZ, AITORTUTAKO GARAPEN-MAILARIK GABE, ETA 2025EKO ABENDUAREN 31N GUZTIRA 5 URTE ETA ERDI NERAMATZAN OSAKIDETZAN ZERBITZUAK EMATEN, 248/2007 DEKRETUAN ARAUTUTAKO ZENBAIT LANBIDE-TALDE KONTUAN HARTUTA. NIK ERE 4 URTE DITUT LANBIDE-TALDE BATEAN, ETA URTE ETA ERDI, GOI-MAILAKO BESTE LANBIDE-TALDE BATEAN, BAINA, NIRE KASUAN, LEHENIK 4 URTEZ BEHEKO KATEGORIAKO LANPOSTU BATEAN ARITU NINTZEN, ETA, GAUR EGUN, GORAGOKO KATEGORIAKO TALDE BATEAN NAGO. BETETZEN AL DUT I. MAILAN SARTZEKO 2025EKO DEIALDIAN ESKATZEN DIREN ZERBITZUEN ZENBAKETAREN BALDINTZA?

**Ez**, ez duzu betetzen lanbide-garapeneko I. mailan sartzeko eskatzen diren zerbitzuen zenbaketari buruzko baldintza, 2081/2025 Ebazpenaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera. I. maila hautatzeko, gutxienez 5 urtez egon behar da sarbidea ematen duen lanbide-taldean zerbitzuak ematen. Orain goragoko taldean zaudenez, **beheragoko lanbide-taldeetan emandako zerbitzuak ezin dira % 100 gisa zenbatu, baizik eta modu haztatuan zenbatu behar dira dagokien taularen arabera**; beraz, zure kasuan, ez zara iristen lanbide-garapeneko I. mailan sartzeko eskatzen diren 5 urte horietara.

## 42. LANBIDE-TALDE BATEAN LANGILE EZ-FINKO GISA IA 6 URTE EMAN ONDOREN, OSAKIDETZAN LANPOSTUA JABETZAN LORTU NUEN BESTE TALDE BATEAN, ETA, 2025EKO ABENDUAREN 31N, TALDE HORRETAN 2 URTE BAKARRIK NERAMATZAN ZERBITZUAK EMATEN. BETETZEN AL DUT I. MAILAN SARTZEKO 2025EKO DEIALDIAN ESKATZEN DIREN ZERBITZUEN ZENBAKETAREN BALDINTZA?

Jabetzan duzun eta gaur egun betetzen duzun lanpostua **248/2007 Dekretuak arautzen badu eta aurreko urteetan ez-finko gisa egon zinen lanbide-taldearekin konparatuta behe-mailako lanbide-talde batekoa bada, betetzen dituzu I. mailara sartzeko eskatzen diren 5 urteen baldintza**, zure lanpostuan emandako zerbitzu-urteez gain, goragoko lanbide-taldean emandako zerbitzu-urteen % 100 zenbatzen delako. Aitzitik, jabetzan duzun eta gaur egun betetzen duzun lanpostua **ez badago 248/2007 Dekretuan araututa edo aurreko urteetan ez-finko gisa egon zinen lanbide-taldea baino goragoko lanbide-talde batekoa bada, ez duzu betetzen I. mailara sartzeko eskatzen diren 5 urteen baldintza**, lanpostuan emandako zerbitzu-urteak zenbatzeko ez baita aintzat hartzen beheragoko lanbide-taldeetan emandako zerbitzu-urteen % 100, dagokien taularen arabera haztatutako balio bat baizik.

### 43. OSAKIDETZAN EMANDAKO ZERBITZUAK ZENBATZEKO, NOLA LORTZEN DA URTEEN KALKULUA? EGUN KOPURUAREN ZATIKETA EGITEKO, 365 ALA 360 HARTZEN DA?

Lanbide-garapenaren ondorioetarako Osakidetzan emandako zerbitzuen zenbaketa honela lortzen da: **zerbitzu aktiboko egunak zati 365 egun** (366 bisurteetan). Izan ere, Osakidetzak lanbide-garapenari buruz duen araudi osoak **urte naturala** ezartzen du emandako zerbitzuak **neurtzeko unitate** gisa. Inon ez da aipatzen zenbaketa horrek 365 eguneko urte naturalaren kalkuluaz bestelakoa izan behar duenik. Aitzitik, 360 egunen erreferentzia Enplegu Publikoaren Eskaintzetatik dator. Eskaintza horien oinarrien arabera, hilabetea da neurtzeko unitatea, hau da, 30 egun natural, eta hamartarrak ez dira kontuan hartzen. **Enplegu Publikoaren Eskaintzen oinarrien araudia, emandako zerbitzuei buruzkoa, ez da aplikagarria hemen.**

### 44. LANBIDE-GARAPENAREN ONDORIOETARAKO, NOLA ZENBATZEN DIRA OSASUN SISTEMA NAZIONALEKO (OSN) OSASUN-ZERBITZUETAN EMANDAKO ZERBITZUAK?

Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetan emandako zerbitzuak Osakidetzan emandako zerbitzuak bezala zenbatzen dira, hau da, **% 100ean sarbidea ematen duen lanbide-taldean emandako zerbitzuetarako eta dagokien haztapenaren arabera gainerako lanbide-taldeetarako.**

### 45. LANBIDE-GARAPENAREN ONDORIOETARAKO, NOLA ZENBATZEN DIRA BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN EMANDAKO ZERBITZUAK?

Beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak % 50ean zenbatzen dira, baina Osakidetzan garapen-mailarako aukeratutako **lanbide-talde berean eman direnean soilik.**

### 46. OSAKIDETZATIK KANPO SEKTORE PUBLIKOKO HAINBAT ERAKUNDETAN EMATEN DITUT ZERBITZUAK. NOLA ZENBATUKO DIRA LANBIDE-GARAPENAREN ONDORIOETARAKO?

Osakidetzan (1), Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetan (2) edo Europar Batasuneko estatu kideei dagozkien osasun sistema publikoetan (3) eman ez diren zerbitzuak soilik zenbatuko dira % 50ean, Osakidetzan maila aitortzeko eskatzen den lanbide-taldeari dagozkionean, baldin eta **beste administrazio publiko batzuetan eta ez sektore publikoko beste erakunde batzuetan soilik eman badira.**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean ezarritakoaren arabera, **sektore publikoko erakunde guztiak ez dira administrazio publikoak.** Lanbide-garapenaren ondorioetarako, Osakidetzatik kanpo,

Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetatik kanpo edo Europar Batasuneko estatu kideei dagozkien osasun-sistema publikoetatik kanpo emandako zerbitzuak administrazio publikoei dagozkie, eta ez sektore publikoari.

## **47. OSAKIDETZAKO LANGILE LAN-KONTRATUDUN FINKOA NAIZ, ONKOLOGIKOA FUNDAZIOAREN INTEGRAZIOTIK DATORRENA. NOLA ZENBATZEN DIRA ERAKUNDE HORRETAN EMANDAKO ZERBITZUAK?**

Sartzeko lanbide-talde berari dagokion bitartean, Onkologikoa Fundazioan emandako zerbitzuak % 100ean zenbatuko dira (2019ko urtarrilaren 1etik hasita) lanbide-garapenaren ondorioetarako, Onkologikoa osasun-zentroa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoan titulartasun publikoko baliabide gisa integratzeari buruzko ekainaren 24ko 134/2025 Dekretuaren arabera. Emandako zerbitzu horiek hainbat lanbide-talderi buruzkoak badira, Osakidetzan, Osasun Sistema Nazionalean eta/edo Osasun Sistema Publikoetan emandako zerbitzuei buruzko 2081/2025 Ebazpenaren 3. artikuluan jasotako haztapen-taula aplikatuko zaie.

Onkologikoa Osakidetzan sartzetik datozen langile lan-kontratudun ez-finkoei ere aplika dakizkieke irizpide horiek.

## **48. ONKOLOGIKOAN, LANBIDE-GARAPENEN MAILA JAKIN BAT AITORTUA NUEN, ORAIN OSAKIDETZAN HURRENGO MAILA LOR DEZAKET?**

Bai, lor dezakezu. Onkologikoa Fundazioan aitortuta zenuen lanbide-garapenaren maila Osakidetzan homologatu zaizu 134/2025 Dekretuaren arabera; beraz, sartzeko baldintzak betetzen badituzu, Osakidetzan hurrengo maila lortzeko aukera duzu.

## **49. ESTATUTUPEKO LANGILE FINKOA NAIZ ETA ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENEAN NAGO (ABBS). NOLA ZENBATZEN DIRA EGOERA HORRETAN EMANDAKO ZERBITZUAK?**

Lanpostuaz bestelako lanbide-talde batean emandako zerbitzuak, aldi baterako barne-sustapenaren bidez lortu direnak, lanpostuaren titulartasuna duen taldean zenbatuko dira, lanbide-garapenaren ondorioetarako.

## 50. ESTATUTUPEKO LANGILE FINKOA NAIZ, ETA GORAGOKO KATEGORIAKO EGINKIZUNAK BETETZEN ARI NAIZ. NOLA ZENBATZEN DIRA EGOERA HORRETAN EMANDAKO ZERBITZUAK?

Goragoko kategoriako eginkizunetan emandako zerbitzuak, lanpostuaren **titulartasuna duen lanbide-taldean** zenbatuko dira, lanbide-garapenaren ondorioetarako.

## 51. A1 EDO B1 LANBIDE-TALDEETAKO PERTSONAL SANITARIOA NAIZ. NOLA ZENBATZEN DIRA IKERTZAILE GISA EMANDAKO ZERBITZUAK?

Azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuan eta otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuan araututako lanbide-taldeetan –unibertsitateko osasun-langileenak dira horiek–, ikertzaile gisa emandako zerbitzuak % 100ean zenbatzen dira, **baldintza hauek guztiak betetzen badituzte**: (1) ikerketa-zentro ofizialetan edo Osasun Sistema Nazionalari (OSN) atxikitako erakundeetan eman dira, (2) lan-kontratu bidez araututa daude eta (3) lizentziadun, diplomadun edo unibertsitate-mailako osasun-titulazioa eta Osasun Zientzietako espezialistaren titulazioa eskatu dira.

## 52. A2 EDO B2 LANBIDE-TALDEETAKO ESTATUTUPEKO LANGILEA NAIZ, ETA IKERKETA-ZENTRO OFIZIALETAN LANGILE IKERTZAILE GISA EMANDAKO ZERBITZUAK DITUT, KONTRATU ETA GUZTI. NOLA ZENBATZEN DIRA ZERBITZU HORIEK?

A1 eta B1 ez diren lanbide-taldeetatik Osakidetzan lanbide-garapenaren maila lortu nahi duten profesionalak ikerketa-zentro ofizialetan langile ikertzaile gisa emandako zerbitzuak **beste administrazio publiko batzuetan eman direnean** bakarrik zenbatzen dira, eta, kasu horretan, % 50ean, betiere Osakidetzaiko garapen-mailara sartzeko lanbide-taldean. Langile ikertzaile gisa emandako zerbitzu horiek sektore publikokoak edo erakunde pribatuetakoak diren ikerketa-zentro ofizialetan eman badira, ezin izango dira kontuan hartu lanbide-garapenean emandako zerbitzuak zenbatzeko.

## 53. BI LANPOSTU DITUT JABETZAN. HORIETAKO LEHENENGOAN, LANBIDE-GARAPENENKO II. MAILA AITORTU DIDATE, BAINA DUELA URTE BATZUETATIK BIGARREN LANPOSTUAN NAGO LANEAN, ETA HORI GORAGOKO LANBIDE-TALDE BATI DAGOKIO. NOLA ZENBATZEN DIRA ZERBITZU HORIEK?

Langile finkoa zarenez, lanbide-garapeneko mailaren eskaera **plazaren titularra izanik eskaera egiteko epean zerbitzu aktiboan zauden** lanbide-taldetik egin beharko duzu, eta lanbide-talde horretan gutxienez 5 zerbitzu-urte izan beharko dituzu garapen-maila lortu ahal izateko. Kasu horretan, behe-

mailako lanbide-taldean emandako zerbitzuak, maila lehendik aitortuta, 2081/2025 Ebazpenaren 3. artikuluan agertzen den taulak ezarritako haztapenaren arabera zenbatuko dira.

## 54. KATALUNIAKO ERABILERA PUBLIKOKO OSASUN SISTEMA INTEGRALEKO (SISCAT) ESTABLEZIMENDU SANITARIOETAN EMANDAKO ZERBITZUAK DITUT. NOLA ZENBATZEN DIRA ZERBITZU HORIEK?

Kataluniako Erabilera Publikoko Osasun Sistema Integralean (SISCAT) emandako zerbitzuak **ez dira nahastu behar Kataluniako Osasun Zerbitzuan (CatSalut) emandako zerbitzuekin**. SISCAT itunpeko zentro eta establezimendu sanitarioen sare bat da, eta hainbat erakundek osatzen dute, horietako asko Sektore Publikoko enpresa pribatuak, fundazioak edo erakundeak dira, eta, beraz, ez daude Osasun Sistema Nazionalean (OSN) integratuta antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez; aitzitik, Kataluniako Osasun Zerbitzuarekin (CatSalut) egindako itunaren bidez ematen dizkiete osasun-zerbitzuak herritarrei.

Horregatik, **Kataluniako Osasun Zerbitzuan (CatSalut) emandako zerbitzuak bakarrik hartzen dira kontuan**, eta ez Kataluniako Erabilera Publikoko Sistema Sanitario Integraleko (SISCAT) erakundeetan emandakoak.

# 7. EBALUATZEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK

## 55. ZEIN MAILATAKO LANBIDE-GARAPENA ESKA DEZAKET OHIKO DEIALDI HONETAN?

Profesional bakoitzak **lehendik aitortua duen garapen-mailatik hurbilen dagoen goragoko maila** baino ezin du eskatu. Osakidetzan edo Osasun Sistema Nazionalean (OSN) aitortutako mailarik ez duten pertsonak I. mailara baino ezin dira sartu.

## 56. III. MAILA DUT AITORTUA LANBIDE-TALDE BATEAN, BAINA BADIRA URTE BATZUK BESTE LANBIDE-TALDE BATEKO LANPOSTUA LORTU DUDALA, ETA HORRETAN LAN EGITEN DUT, MAILA AITORTU GABE. BA AL DUT ORAIN BI LANBIDE-TALDE HORIETAKO BATEAN IV. MAILA LORTZEKO AUKERARIK?

**Ez**, ezin duzu lanbide-garapeneko IV. maila lortu **bi lanbide-talde horietako batean ere**. Lehenik, ezin duzu IV. maila lortu **gaur egun zauden lanbide-taldean, talde horretan ez baituzu III. maila aitortua**. Izan ere, lanbide-talde horretan ez duzu inolako maila aitorturik. Kontuan izan dagoeneko aitortua duzun mailatik hurbilen dagoen goragoko maila baino ezin duzula eskatu.

Bigarrenik, aurreko lanbide-taldeko IV. mailara ere ezin zara sartu, talde horretan III. maila aitortua duzun arren, **talde horretako lanpostuan modu aktiboan aritzen ez zarelako**. Beraz, eskaera egiten den unean zauden lanbide-taldeko I. maila eska dezakezu.

## 57. DEIALDIAN ONARTZEN BANAUTE ETA GARAPEN-MAILA LORTZEKO ESKATZEN DIREN ZERBITZU-URTEAK BETETZEN BADITUT, ZIURTATUTA DAGO AITORTUKO DIDATELA LANBIDE-GARAPENENKO MAILA HORI?

Ez. Deialdian onartuta egotea eta garapen-maila lortzeko eskatzen diren zerbitzu-urteak **ezinbesteko baldintzak** dira ebaluazioa egiteko ohiko deialdian parte hartzeko, baina **ez dira baldintza nahikoak** lanbide-garapenaren maila aitortzeko. Horrez gain, profesionalek hiru ebaluazio-blokeetako bakoitzean ezarritako gutxieneko puntuazioak lortu beharko dituzte.

## 58. OHIKO DEIALDI HONETAN, ZER FAKTORE EBALUATZEN DIRA LANBIDE-GARAPENAREN MAILA AITORTZEKO?

Azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 dekretuen arabera, ebaluazio-faktoreak **hiru bloketan** egituratzen dira: **A blokea** (Jarduera, Konpetentzia eta Jardun profesionala), **B blokea** (Prestakuntza, Irakaskuntza/Ezagutzaren Hedapena eta Ikerketa/Berrikuntza), eta **C blokea** (Parte-hartzea eta Konpromisoa). Garapen-maila jakin bat aitortzeko, beharrezkoa da ebaluazioa gainditzea eta **bloke bakoitzean gutxieneko puntuazio bat lortzea**. Puntuazio hori aldatu egiten da lortu nahi den mailaren eta eskatzen den lanbide-taldearen arabera.